



Kontuak emateko I. konpromisoan parte hartzen duten tokiko erakundeei pilotua aurkezteko eta garatu den web-atariaren erreferentzia ezartzeko akta.

Deialdia eta bertaratuak:

Bilera Euskadiko Agiritegi Historikoan egin da (M^a Díaz Haroko 3, Bilbo). 10:00etan hasi da eta behean zehazten diren entitate eta pertsonak parte hartu dute:

Bertaratuak	Ordezkaria
Arrigorriagako udala	• Maite Ibarra (Alkatea)
Abanto-Zierbenako Udala	• Maite Etxebarria (Alkatea)
Balmasedako Udala	• Javier Bilbao Sarmiento
Barakaldoko Udala	• Asier Rodríguez • Carolina Zabaco
Bilboko Udala	• Amagoia Ibarondo • Carmen Martínez
Donostiako Udala	• Ibon Ramos
Ermuko Udala	• Montserrat Gutierrez • Sergio Díaz Martínez
Irungo Udala	• Xabier Zabaleta
Laudioko Udala	• Ander Larrinaga • Maite Cortazar
Mungiako Udala	• Ziortza Arrien eta • Nagore Torre Ureta
Urdulizko Udala	• Javier Bilbao (Alkatea)
Zamudioko Udala	• Igotz López (Alkatea)
Castro Urdialesko Udala	• Agustina González Fernández
iBatus	• Antxon Gallego, • Arrate Garcia Campos • Miren Urquizu
Innobasque	• Alfredo Gomez Arrieta
eFaber	• Svet Ivanchev
Parte Hartze	• Maialen Olabe
Bilboko Emakumeen Kontseilua Foro Erregularreko presidentekidea	• Maria Aranzazu Otaolea

Bizkaiko Foru Aldundia	<ul style="list-style-type: none"> • Josu Bilbao • Raúl Gutierrez
Eusko Jaurlaritza	<ul style="list-style-type: none"> • Luis Petrikorena • Jokin Olaizola • Berta Ruiz de Infante

Jorratu diren gaiak:

Honako gai hauek jorratu dira:

1. Web pilotua aurkeztu da, Agintaldiko Planaren kontu-ematerako (prestaketa eta kontu-ematea) erreferentzia moduan.
2. Probaldirako plangintza eta beharrezkoak izan daitezkeen doikuntzak.

1. Web pilotuaren aurkezpena

Kontuak emateko 1. konpromisoa abian jartzeko elkarlanean ari diren erakundeetako ordezkariak, Luis Petrikorenak eta Josu Bilbaok, ongietorria egin diete bertaratu diren guztiei; horrez gain, proiektuaren azalpen eta aurkezpen orokorra ere egin dute.

Ondoren, Gobernu Irekiaren teknikari batek plataforma informatiko baten prototipoaren aurkezpen funtzionala eta operatiboa egin du, hau da, azken hilabeteetako bileretan eztabaidatu eta adostu diren agintaldiko planaren eta kontu-ematearen oinarritzko ereduari laguntze aldera abian jarri den plataforma informatikoaren prototipoa aurkeztu du.

Bertan berariaz dago zehaztuta hartu zen alde zurreko baldintza: prototipoak arkitektura logiko erraza dauka, eta mota, tamaina eta problematika desberdinak dituzten administrazio publikoen arteko elkarbizitza ahalbidetuko duen izendatzaile komunitateko txikiena du.

Funtsean, honako hauek aurkeztu dira:

- a. Plataformarako sarbidea: <https://kontuematea.irekia.euskadi.eus/obaba> (adibide eta proba-eredu moduan konfiguratu dena Sarrera mugatua eta pribatua izango dela azaldu da; horrela, beharrezkoak diren probak egin ahal izango dira, murrizketa eta interferentziarik gabe.
- b. Parte hartzen duen erakunde bakoitza konfiguratzeko eta pertsonalizatzeko oinarritzko datuak. Laster, erabiltzaile-profil bi ezarriko dira: gunearen administratzailearena (konfiguratzeko eta erabiltzaile berriak kudeatzeko baimenak izango ditu) eta editorearena (soilik edukiak sartzeko eta eguneratzeko). Era berean, eremu berriak jarriko dira, batetik, erakunde bakoitzaren URL zehatzak (sare sozialetako kontu ofizialak, herritarrek izapideak egiteko orrialdeak, eta abar) sartzeko eta, bestetik, bakoitzaren lege-oharrak sartzeko.
- c. Zer-nolako interakzioa dagoen denbora errealean, kudeaketa eta administrazio atalaren eta sarbide publikoko atalaren artean.
- d. Aldez aurretik zehaztu diren bi mailen erabilgarritasuna: Helburuak eta ekintzak. Azken horren barruan, garatzen diren jardueri jarraipena egingo zaie. Erakunde

bakoitzak dituen beharrianen arabera nahi izanez gero erabili ahal izango diren adierazleak egongo dira, tipologia desberdinekoak.

e. Era berean, Bizkaiko Aldundiak, Biscaytik, Udala Zabaltzen plataformaren eskura jartzea adierazi du, bertan OGP-Euskadi tresna berri hau integratu ahal izateko eta bi norabideetako datuen truke automatizatua ahalbidetzeko. Pasabide horren bidez, sistemaren erabiltzaile diren Bizkaiko udal guztientzat zerbitzu bat eskaintzen da, ahaleginak bikoiztea saihestuko duena.

Galderen eta kontsulten tartea hasi da; denbora horretan, hain zuzen, alderdi jakin batzuk argitu dira eta gai txiki batzuk eta doikuntza zehatz batzuk kontuan hartu dira. Tarte horretan parte hartu du eFaber enpresa garatzaileko espezialistak; azalpen teknikoagoak eman ditu erabilgarri dauden funtzioei eta aukerei buruz. API bat erabiliko dela ere aurreikusi du, eta horren v1 eskuliburu teknikoa dagoeneko prest dagoela adierazi du.

2. Probaldirako plangintza eta beharrezkoak izan daitezkeen doikuntzak

I. konpromisoaren kudeatzaileek honako hauek azaldu dituzte:

1. Fase pilotu honetan parte hartu nahi duten erakundeak dagoeneko has daitezke alta hartzeko eta tresna banaka erabiltzen hasteko eskaerak aurkezten, horretarako epea ireki da.
2. Epe horretan, Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari helarazi behar zaizkio gertatzen diren gorabehera teknikoak eta egin nahi diren iradokizun berriak. Ahalik eta arinen konpontzen ahaleginduko da, edo, egoki denean, horien ebaluazioa egingo da.
3. Erabiltzaileei alta ematea: eskaerak Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari helaraziko zaizkio.

Tresna erabiltzeko proba-fasea 2020ko martxoaren 31n amaitzea aurreikusi da.

Ondoren, erakunde bakoitzarekin hitz egingo da abiarazterako behin betiko data bat zehazteko: orientazio gisa, apirilko lehenengo astea iradoki da.

Egoera-aldaketa horri dagokionez, parte hartzen duen erakunde bakoitzarekin adostuko da zein tratamendu emango zaien erakunde bakoitzak probaldian sartu dituen datuei. Nolanahi ere, abiaraztean berrerabiliko diren edukiak "zirriborro" gisa agertuko dira. Horrela, erakunde bakoitzak ezarriko ditu bere egutegia eta argitaratzeko prozesuak.

3. Jorratu diren beste gai batzuk

OGP-Euskadi 2018-2020 Ekintza Planaren indarraldia amaitu arte aurreikusi den egutegiari dagokionez, honako hauek azaldu dira:

- Komeni da webgune berrian kargatzea parte hartzen duen erakunde bakoitzaren Agintaldi Plana, **maiatzaren hasieran**.
- **Maiatzaren erdirako** adierazleak sartu behar dira, Agintaldi Planaren helburuak zein egoeratan dauden azalduko dutenak.
- Herritarrekin elkarreragina aktibatuzeko dibulgazio-ekintzak, kontu-ematearen gizarte-auditoretza eratzeko.

- **Ekainaren azken hamabostaldian** pilotuaren azken ebaluazioa egingo dute erakunde erabiltzaileek.

Bileraren azken balantze gisa, kontuak emateko I. konpromisoko taldean parte hartu duten hamabost udalerriek (alkate batzuk ere tartean) zuzenean ezagutu dute tresna funtzionala, eta orain irekitzen den fasean parte hartu nahi dutela adierazi dute

Azkenik, koronabirusaren epidemiak ekarri digun egoeraren ondorioz, aurrerantzean bilerak modu birtualean egingo dira.

Bukatu dira jorratu beharreko gai guztiak, eta 13:00etan amaitu da bilera.